

Lehiaketak

Amodiozko mezuak/Bergara. Bergaran, sakeleko telefono bidezko mezuen lehiaketa antolatu dute. Parte hartzeko egin behar den gauza bakarra 652-72.94.35 edo 605-71.24.69 telefonotara mezu bat bidaltzea da, eta haren ondotik parte-hartzailearen izena jartzea. Mezuak urtarrilaren 15a baino lehen igorri behar dira.

Narrazio lehiaketa/Tolosa. Tolosan, Antonia Maria Labaien narrazio lehiaketa antolatu dute. Bertan aruketu beharreko lanak euskarazko, originalak eta inoiz saritu gabeak izan behar dute. Gaia libre da, baina formaz nahiz edukiz, 14-18 urteko gazteentzat egokia izan behar du. Gutxienez 30 orri izan behar dituzte. Lanak Aranburu liburutegian utzi behar dira, urtarrilaren 19a baino lehen.

Literatur lehiaketa/ Bortziariak. Bortziarietako Bai Euskal Herriari taldeak Herriak eta Hizkuntzak literatur lehiaketa antolatu du. Bertan, hamaisei urtetik gorako pertsona guztiak har dezakete parte, eta genero guztiak onartzen dituzte. Hala, bertso paperak, olerkiak, ipuinak, saiakerak... aurkeztu ahal dira. Lanen luzera ez da mugatuko, eta partaide bakoitzak lan bat baino gehiago aurkez dezake. Lanak aurkezteko epea 2003. urteko martxoaren 29an itxiko da. Xehetasun gehiago: 948-63.41.25 edo bortziariak@euskalnet.net.

Bekak

Kafe-antzerkia/ Bortziariak. Bortziarietako Euskara Mankomunitateak, Berako Udalak eta Etxalarko Udalak kafe-antzerki bekarako deialdia egin dute. Euskaraz sortutako proiektuak lagunduko dituzte, eta, ildo horretan, euskal sortzaileei bultzada ematea eta herrietan formatu txikiko lanak taularatzeko izango du xede egitasmoak. Bi beka izanen dira; biak 900 eurokoak. Curriculumaren eta proiektuaren ezaugarri nagusiak bilduko dituen txostena aurkeztu

LIBURU GOMENDIOA

Fernando Morillo 

Idazlea



Armand David, pandaren aita.

Kepa Altonaga. ■ Elhuyar.

Kepa Altonagaren liburu hau, bi hitzetan, ikaragarri EDERRA da. Ederra, dotorea, fina. Zientzialariak, maiz, konplexuegiak izateko amildugian erortzen dira zientziaren inguruan jardutean. Ez da erraza —batere ez— sakon eta argi izatea. Are zailagoa da, oraindik, zientzia-testu erakargarri bat egitea. Altonagak lortu du, bikain lortu ere. Gozatu egiten du erakusten, irakasten. Nabari —eta eskertzen— da.

Euskara bikainean, Altonagak Armand David naturalista ezpeletarraren historia ikusgarria

kontatzen digu. Armand David euskal jakintsu handienetakoa dugu. Handia bezain —geure madarikazioa balitz bezala— ezezaguna. Zenbait bidaia egin zuen Txina aldera, eta, besteak beste, panda (hartza) aurkitu eta deskribatu zuen lehen zientzialaria izan zen. To. Armand Daviden biografia XIX. mendeko Marco Polo batena da, bizia eta sinesgaitza. Eta horrexegatik, zientzia liburua izateaz gain, abenturazkoa ere bada. Beste zenbait gauzaren artean. Kapituluak, irakurri baino gehiago, *nabigatu* egingo dituzue, hurrengo orrialdean zein azalpen, zein istorio etor daitekeen jakiteko gogoz. Armand Davidi buruzko liburu hau altxor txiki bat da. Merezi du berarekin aberastea.

behar dira. Horiek aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da. Eskerak helbide honetara bidali beharko dituzte: Bortziarietako Euskara Mankomunitatea, Herriko plaza 7, 31.790 Arantza, Nafarroa. Argibide gehiago 948 634125 telefonoan, 948 634192 faxean eta bortziariak@euskalnet.net helbide elektronikoan.

Ikastaroak

Gidoigintza/Donostia. Gidoiak idazten ikasteko ikastaroa antolatu du Pausoka produktorak. Urtarrilaren 14tik otsailaren 27ra bitartean, astero bi orduko hiru saio emango dituzte. Irakasleen artean Asier altuna, Ritxi Lizartza eta Joselu Blanco izango dira. Informazio gehiago: www.pausoka-eskola.com edo 943-29.71.11.

Sexualitatea/Soraluze. Urtarrilaren 10ean eta 12an, sexualitateari buruzko ikastaroa egingo dute gaztetxean. Bi saioak 19:30ean hasiko dira.

Hainbat/Atarrabia. Atarrabian hainbat ikastaro antolatu dituzte urtarrietik ekainera bitartean. Urtarrilaren 20ean hasiko dira. Afrikar dantzak, esate baterako, asteartean egingo dituzte (19:30etatik 21:30etara), sabel dantzarako bitalde antolatu dituzte (Hastapeneak,

astelehenetan 20:00etatik 22:00etara; eta jarraipena, asteazkenetan 19:30etatik 21:30etara), masaje saioak ostegunetan (19:30etatik 21:00etara) egingo dituzte eta astrologiakoak asteazkenetan (19:30etatik 21:30etara). Izen emateko epea urtarrilaren 12an amaituko da ikastaro guztietarako, eta Atarrabiako gaztelekura jo behar da horretarako. Telefonoa: 948-35.59.87.

Erakusketak

'1000 hitz baino gehiago'/Pasai Donibane. Juanxto Egaña argazkilarik eta Borja Goitia diseinatzaileak antolatutako erakusketa da hau. Bertan, euskal liburuen azal ugari bildu dituzte. Victor Hugo etxean daude ikusgai, igandea bitartean.

'Hire Himalaya'/Bilbo. Alberto Iñurritegik, 1998. urtetik iragan udaberri arteko espedizioetan, ateratako argazkiak ikusgai dira Hire Himalaya erakusketan. Urtarrilaren 18ra arte zabalik izango da BBK aretoan (Elkano, 20).

Akrilikoak/Getxo. Carmen Ruizek Erromoko erakusketa aretoan ipinitu ditu ikusgai bere akrilikoak. Erakusketa asteartean zabalduko da, eta hilaren 18a arte izango da zabalik.

Artea/Bilbo. Bideoaz, egurrez, ohiak sintetikoaz eta abar sortu dituzte artelanak Re-x izeneko erakusketan. Oihana Garro, Ion Cia eta Iñaki Diarzabal dira egilñeak, eta Zapikaleetako La Brotxan dago ikusgai. Bihar arte egongo da zabalik.

Hitzaldiak

Kartzeletan biziraupena/Iruñea eta Santurtzi. Francisco Brotons preso ohiak espetxean emanadako urteetan jasotako esperientziak kontatuko ditu *25 años de resistencia en las cárceles fascistas* izeneko hitzaldian. Gaur, 19:30ean, Iruñeko gaztetxean izango da; eta ostiralean, ordu berean, Santurtziko La Kelo etxean.

Palestina/Soraluze. Gaur, 19:30ean, Palestinari buruzko bideo emanaldia eta hitzaldia egingo dute gaztetxean, Komite Internazionalistek antolatuta.

Irak/Getxo. Iraken gerta daitekeen gerra aztergai izango dute, gaur, Getxon. 20:00etatik aurrera Mikel Etxeburu izango da hizlari Erromoko KulturElkartean.

Herrialde musulmanak/Azkoitia. Bihar, Jesus Torquemada kazetariak *Un viaje por los países musulmanes* izeneko hitzaldia eskainiko du kultur etxean, 19:30etatik aurrera.

Antzerkia

'Biblia osoa gutxi gorabehera'/Zumaia. Bihar, 22:30ean, Kanpingags taldeak bere azken lana aurkeztuko du Aita Mari Aretoan.

Dantza

'Tierra adentro'/Bilbo. Gaur hasi eta igandera bitartean, Arriaga Antzokian Cristina Hoyosen balletaren saioak ikusteko aukera izango da. Emanaldiak 20:00etan izango dira larunbatera arte, eta igandean 19:00etan.

Bertsolaritza

Bertsulari gazteen topaketa/Oiartzun. Datorren otsailaren 1ean eta 2an, Arrixuloko I. Bertsulari Gazteen I. Topaketa egingo da. Hendaia, Kanbo, Lesaka, Bera, Oiartzun eta Hernaniko bertso eskoletako irakasleek antolatu dituzte jardunaldiak 12 eta 15 urte arteko gazteentzat. Asteburuan zehar elkar ezagutzeko, bertsoan aritzeko, astialdirako ekintzatan parte hartzeko... aukera izango dute. Bertan parte hartu nahi duten guztiak bere bertso irakasleari jakinarazi beharko dio urtarriaren 14a baino lehen, eta hari ordaindu egonaldiak balio dituen 20 euroak. Informazio gehiagorako: 05.59.47.51.93.bn

Zinema

Europako westerna/Donostia. Nosteratu zikloaren barruan, Europako westernari buruzko emanaldiak ari dira egiten, asteazkenetan, Donostian. Hilaren 15ean, esate baterako, *Pendaison a Jefferson City* (Jean Durand, 1905), *Caliano Veut Etre Cow-boy* (Jean Durand, 1911), *Onesim Sur Le Sentier De La Guerre* (Jean Durand, 1913) eta *Haceldama Du Le Prix Du Sang* (Julien Duvivier, 1919) filmak emango dituzte, 20:15ean, Antzoki Zaharrean.

Bestelakoak

Mahai ingurua/Ondarroa. Kirmen Uribe, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Gorka Ostolaza eta Peru Aranburu *Ahozkatik idatzira* gaiaren inguruan bilduko dira ostiralean, 22:30ean, Kafe Antzokian.

BIBLIAREN KONTUEKIN IRRIAK ZUMAIAN

Biblia osoa gutxi gorabehera antzezlanak aurkeztuko du bihar (22:30ean) Kanpingags taldeak Zumaian Aita Mari Aretoan. Bibliako pasarteak oinarritzat harturik umorea landu dute obra honetan, lehenago *Shakespeare osoa gutxi gorabehera* lanarekin egin zuten moduan. Asier Hormazak, Patxi Barco eta Joseba Apaolazak hartzen dute parte antzezlanean.

